

Tolosako Udalak izango duen egitura zehaztu du udalbatzak

Alkateak eta hiru esparruetako koordinatzaileek dedikazio eskusiboa izango dute eta lanaldi erdikoa Kultura eta Berdintasun zinegotziak; EAJk bi zinegotzi izango ditu dedikazio eskusiboan, eta dedikazio partziala izango du PSE-EEko ordezkariak // 4

Elduaingo ostatua kudeatzeko izena emateko aukera dago

Azken hiru urteetan itxita egon da, eta berriro ostean berriro irekitzeko prest dago; ostatu zerbitzuaz gain, denda ere izango du aurrerantzean // 5

San Fermin Torneoko hirugarren txapela jantzi du Altuna III.ak

Jaka lizartzarraren aurka 14-22 irabazi du txapelketa; 14-12 joan zen aurretik Jaka, baina 0-10eko partziala eta gero amezketarra gailendu zen // 7



Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egin zuten urteurreneko festa, iragan ostiralean. J. MIRANDA

Nigeriar emakumeak elkartzeko gunea

Divina Gipuzkoako emakume nigeriarren elkarteak bosgarren urteurreneko festa egin du Zizurkilen; emakume nigeriarrak elkartzeko eta euren talentua ezagutzera emateko sortu zen // 4



ANOETA – LEKU EDER

3 EDO 4 LOGELA - GARAJE ITXIAK
TERRAZA PAREGABEAK HEGOALDERA

**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Hiru lan esparrutan antolatuko da Tolosako Udala

Alkateak eta hiru esparruetako koordinatzaileek dedikazio eskusiboa izango dute eta lanaldi erdikoa Kultura eta Berdintasun zinegotziak



Udal gobernu berriak egindako lehen osoko bilkuran hartutako irudia. ATARIA

Erredakzioa

Datozen lau urteetan Tolosako Udalak izango dituen egitura eta lan dinamika definitu ditu udalbatzak agintaldiko lehen osoko bilkuran. Hiru lan esparru zabal-tan oinarritutako ereduarekin jarraituko du aurrerantzean ere EH Bilduren udal gobernuak, «fintzen jarraitzeko asmoarekin», osoko bilkuran aipatu duenez. Antolakuntza lan esparruko koordinatzaile izango da Kristina Pelaez; Lurralde lan esparruko koordinatzaile Ander Figuerido; eta Herritarren lan esparruko koordinatzaile Aitor Agirresarobe. Lan esparru horiekin lotutako batzorde informatibo iraunkorrak ere eratu dituzte lehen osoko bilkuran eta batzorde horietako bakoitza zazpi zinegotzik osatuko dute: EH Bilduko lauk, EAJko bik eta PSE-EEko ordezkariak.

Lan esparru bakoitzaren barruan udaleko sailak eta azpisailak egongo dira, eta horietako bakoitzak zinegotzi delegatu bana izango du. Zinegotzi delegatu hori arlo hori koordinatzeaz arduratuko da, eskumenak es-

kuordetuta izango dituzten gainerako zinegotziekin batera.

ANTOLAKUNTZA LAN ESPARRUA

Kristina Pelaez izango da buru eta idazkaritzako sailaren delegatuak, azpisailen arabera, hauek izango dira: idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarean Kristina Pelaez; Giza Baliabideetan Josune Sanz; Erregistroa eta Informazioa, Herritarren Arreta Zerbitzuan (UDATE) Garbiñe Marzol; eta Etxebizitzan Ander Figuerido.

Informatika eta teknologia berrien sailaren delegatua Kristina Pelaez izango da; Kontu-hartzaile eta Diruzaintza sailaren delegatua Estitxu Kortejarena izango da; Udaltzaingo sailaren titularra, delegaziorik gabe, Andu Martinez de Rituerto izango da.

LURRALDE LAN ESPARRUA

Ander Figuerido izango da bigarren lan esparruko arduradun nagusia.

Horren barruan Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Mugikortasun, Ingurumen eta Trantsizio

Energetikoaren sailak ondorengo delegatuak izango ditu, jarraian aipatzen diren azpisailen arabera: Hirigintza eta obretan Ander Figuerido; Jasangarritasun, Ingurumen, Mugikortasun, Trantsizio Energetikoa eta Landa Garapenean Aitor Agirresarobe; eta Obra eta Zerbitzuetan Ander Figuerido.

HERRITARREN LAN ESPARRUA

Aitor Agirresarobe izango da Herritarren Lan-Esparruaren buru. Eta horren barruan Gizarte Zerbitzu eta Osasun sailean Kristina Pelaez ariko da; Garapen Ekonomiko eta Enplegu-Sustapen azpisailen Estitxu Kortejarena; Turismo, Merkataritza eta Azokan azpisailen Aitor Agirresarobe; Euskara eta Euskaltegia azpisailen Garbiñe Marzol; Gazteria eta Hezkuntza Politika azpisailen Aitor Agirresarobe; Kirol Sailean Andu Martinez de Rituerto; Kultura azpisailen Goiuri Ezeiza; Festetako azpisailen Aitzol Gartzia; Komunitatea eta Gobernantza sailean Josune Sanz; eta Berdintasun sailean Goiuri Ezeiza.

Alkateordeen izendapena, berriz, hurrenkera honetan egin

da: Ander Figuerido, Kristina Pelaez, Aitor Agirresarobe eta Goiuri Ezeiza. Hain zuzen, lau alkateordeek Tokiko Gobernu Batzarra osatuko dute, alkatearekin eta Estitxu Kortejarena zinegotziarekin batera.

DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIAK

Agintaldi berrian alkateak eta lan esparruetako koordinatzaileek dedikazio eskusiboa izango dute, eta lanaldi erdikoa, berriz, Kultura azpisailen eta Berdintasun saileko zinegotzi delegatuak. EAJk bi zinegotzi izango ditu dedikazio eskusiboan, eta dedikazio partziala izango, du aldiz, PSE-EEko ordezkariak.

Eudel udalerrien elkartek ezarritako irizpideen arabera, gehieneko ordainsaria baino %15 txikiagoa izango du alkateak, eta horren arabera gainerako zinegotziek. EAJren udal taldeak zinegotzien ordainsarien inguruko emendakina aurkeztu du lehen osoko bilkuran, esan duenez, etorkizuneko legealdietan korporazio kideen inguruan egon daitezkeen «desadostasunak eta irizpide desberdinak» ekiditearren.

Xabier Balerdi zinegotzi jeltza-

leak gogorarazi du Eudelen 2007an gehieneko ordainsariak zehazteko akordioa lortu zela alderdi politiko ezberdinen artean. Akordio hori gehiago zehaztearen alde egin du Balerdik eta ondorengo proposatu du: «Gai hau behin betiko debate politiko antzuetatik ateratzeko, udalbatzak eska diezaiola Eudeli alkate eta zinegotzien gutxieneko ordainsariak zehazteko, beti ere egokien deritzon irizpideen arabera (biztanle kopurua edota aurrekontuak, esaterako)».

Aldi berean, udalbatzak zehaztu ditu agintaldi berriko lan dinamikak. Osoko bilkurak hilabete bakoitzeko ostegunetan izango dira 18:30ean; jai eguna balitz, bezperan ordu berean egingo dute osoko bilkura. Batzorde informatiboak osoko bilkuren aurreko asteazkenean egingo dira: Herritarak (08:00 - 09:30), Lurraldea (09:30 - 11:00) eta Antolakuntza (11:00 - 12:30). Tokiko Gobernu Batzarra, aldiz, astearte-ko egingo dira, 09:00etan.

Behin behineko pertsonalaren bi lanposturen izendapena ere egin dute: alkatearen idazkariarena eta komunikazio arduradunarena.

Hilberriak eta urteurrenak



Maria Zabaleta Sasieta

Ostiralean hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko eman diguzunagatik.

Senarra: Tomas Urbegain; seme-alabak: Jesus Mari eta Lurdes Garate, Bittor eta Eneida Andueza, Anastasio eta Esther Amenabar; bilobak: Aiala, Malen, Irati, Itziar, Oinatz, Aizpea; anai-arrebak; ezkon anai-arrebak; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideek.

URRETXXUn, 2023ko uztaillaren 11n.

**Ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Berrehun urte bete dira Fernando Amezketarra hil zela

Urteurren berezia ospatzeko bat egin dute Amezketako Udalak, Zumadi Eskolak, Akelok Guraso Elkartek, Amezketako Antzerki Taldeak eta Bertsozale Elkartek

Erredakzioa Amezketa

«Ez dakigu seguru esan izan diguten bezala araneekin betekada egin, ura edan eta haren ondorioz, edo bestelako gaitzen batek erasanda hil zen Fernando. Baina gauza jakina da 1823ko uztailaren 9an itzali zela Amezketako bertsolari handia», adierazi dute herritarrek. Herenegun bete ziren, beraz, 200 urte hil zenetik, eta urteurren borobilaren ospakizuna udazkenean egingo dute Amezketan.

Pernando Amezketarra, izenez Fernando Bengoetxea Altuna, 1764ko urriaren 10ean jaio zen Amezketan. Bertsolaria eta plazagizona izan zen. Bere ateraldi umoretsuengatik, bizitasunagatik eta argitasunagatik oso ezaguna izan zen Gipuzkoan, eta 1990eko hamarkadan argitaratutako marrazki bizidunen bitartez gaur egungo euskaldunen artean ere ospetsua da. Haren bitxikeriak eta ateraldi xelebreak Gregorio Mujikak jaso zituen behin eta berriro berrargitaratu den *Pernando Amezketarra* izeneko liburuan.

Bada, pertsonaia omentzeko ekitaldiak udazkenean egingo



Antton Amondarain, Bixente Gorostidi, Ttiri Gorostidi eta Eneko Goitia. ATARIA

dituztela iragarri dute, Udazken Kulturalaren barruan. Izan ere, «Fernandoren garaian ez bezala, orain, udaldian erdi-opor, erdi-lozorroan ibiltzen gara, eta amezketar askok ere kanpora jozten du egun hauetan».

Amezketako Udala, Zumadi Eskola, Akelok Guraso Elkartea, Amezketako Antzerki Taldea eta Bertsozale Elkartea batu dira urteurren berezia ospatzeko. Udazkenera bitarte, egitaraua presta-

tzeko lan taldea osatu dute, eragile bakoitzetik ordezkari banarekin. Horretaz gain, Amezketako gainontzeko eragileei ere gonbidapena luzatu diete ospakizunean parte hartu nahi duen edozein talde edo elkartek ere bat egiteko.

Lan taldea martxan ariko da hurrengo hilabeteetan. «Bitartean saiatu Fernandoren pasadizo eta bertsoak gogoratu eta haiekin gozatzen», esan dute.

UEMAko hautetsiak sententziaren aurka batu dira

Espainiako auzitegiaren ebazpena «kolpe handia» izan dela diote, eta onartu ezin den «atzerakada» bat ekar dezakeela; «erantzuna» ezinbestekoa dela uste dute

Erredakzioa

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko hautetsiek agerraldi jendetsua egin dute Usurbilen, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak udalei euskara hutsez funtzionatzeko bidea ezeztatu dien sententzia deitoratzeko. Udal legearen artikuluko bategiaren zehazki euskarazko funtzionamendu hori; agiriak euskaraz bakarrik egiteko irizpideak zehazten ditu, eta horren kontrakoa izan da epaia.

«Nahikoa da. Nahikoa dela esatera etorri gara gaur UEMAko ordezkariok», esan dute. Mankomunitateko jarduneko lehendakari Iraitx Lazkanok irakurri du agiria. Txalo zaparrada handi batekin amaitu dute.

Agerraldian nabarmendu dute «hainbat kolore politikotako» ordezkariak batu direla, eta batasun irudi horrekin erakutsi nahi izan dutela «lege babesarekin edo gabe» asmoa dutela euskaraz lan egiten jarraitzeko. Gogoratu dute udal legea 2016an Eusko Legebiltzarrean onetsi zela «gehiengo zabalaren» babesarekin, eta udal legearen 6.2 artikulua ez duela ezer okerrik esan dute. «Arau horrek aukera ematen die udalei erakunde barruko idatzizko dokumentuak erabat euskaraz egiteko, betiere hizkuntza eskubideak urratu gabe. «Ez gara ari herritarrekiko harremanei buruz».

Ebazpenak inolaz ere onartu ezin den «atzerakada» bat dakarrela adierazi dute: «Kolpe handia da». Atzean «ultraeskuina» dagoela gogoratu dute. Hain justu, Voxek eraman zuen aurrena auzitara udal legean oinarritutako dekretu bat. Ondoren, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak egin zuen «bigarren urratsa», dekretuaren «oinarriaren» kontra eginda: udal legearen beraren kontra. Legeak idatzizko agiri

inguruan zehaztutakoak «inkonstituzionalak» izan zitezkeen susmoa azaldu zuen, eta horixe bera berretsi du Konstituzionalaren ebazpenak.

Bada, Konstituzionalak legearen interpretazio «erabat traketua» egin duen uste dute UEMAko hautetsiek, eta hizkuntza eskubideei buruzko «argudio erabat onartezinak» erabili dituela. Eta ondorioak larriak dira: «Finean, epai honekin udalei eskumena kendu zaie beren barne funtzionamenduan hizkuntzen erabilera arautzeko, eta muga argi bat ezarri da: administrazioan, gaztelaniaren makuluarekin soilik erabil daiteke euskara».

UEMAko hautetsiek esan dute euskaraz jardun nahi duten udalen arazoak ez direla berriak, lehendik ere maiz izan baitituzte arazoak aktak-eta euskaraz egiteko. «Eta sententzia honek berriro garamatza orduko egoerara». Berriki euskararen normalizazioaren kontrako epai gehiago ere egon direla gogoratu dute, eta esan dute auzitegiak euskara sustatzeko «lege zimendua higitzen» ari direla horien bidez.

«ERANTZUNA, EZINBESTEKOA»

Kontrako erabaki horiei guztiei erantzute aldera «elkarrekin bat eginda» lan egin behar dela adierazi dute. «Ez da onargarria hainbeste urteren ostean orain atzerantz hastea». Horregatik, pentsatzen dute «erantzuna» ezinbestekoa dela. Gogoratu dute Kontseiluak «oldarraldi judizialaren» aurkako manifestazio batera deitua duela azaroaren 4rako, eta nabarmendu dute garrantzitsua izango dela han egotea. Era berean, «oldarraldia» aurre egite aldera, «erantzun juridiko sendoa» ere behar dela uste dute. «Lege esparru eraberritu» bat behar dela azaldu dute, eta horren aldeko urratsak egin behar direla, egiturazkoak.

Bertso udalekuak izango dira Larraulen, hilaren 25etik 31ra

Erredakzioa Larraul

Bertsozale Elkartek Bertso Udalekuak antolatu ditu bertsozale gazteenentzat. Izen ematea zabaldua egun gutxitan bete ziren leku guztiak, eta guztira, 163 gaztetxok eta 31 hezitzailek hartuko dute parte.

Adinka banatu dituzte txandak eta 14 eta 15 urte arteko gazteak, adibidez, Larraulgo aterpetxean elkartuko dira uztailaren 25etik 31ra.

Euskal Herriko herrialde guztietako eta Diasporako gaztetxoei hartuko dute parte Bertso Udalekuan eta egonaldiak Amairren, Irañetan, Zuhatzan eta Larraulen egingo dituzte. Udalekuetako parte hartzaileen %80 bertso eskola bateko kideak dira, eta Bertsozale Elkartetik argitu dutenez, behin Zuhatzan Bertso Udalekuak lehen aldiz probatuta, %75ak errepikatzen du ondorengo txandetan.

Bertsozale Elkartek antola-

tzen ditu Bertso Udalekuak, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin eta Irizarren laguntzarekin.

Honela banatu dituzte txandak aurrean: uztailaren 8tik 17ra Amairren, 16-18 urte bitartekoak; uztailaren 18tik 24ra Irañetan, 12-13 urte bitartekoak; uztailaren 24tik 28ra Zuhatzan, 9-11 urte bitartekoak; eta uztailaren 25etik 31ra Larraulen, 14-15 urte bitartekoak.

Uzta Giro antolatu du Irura Bizik larunbaterako

Erredakzioa Irura

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Uzta Giro festa antolatu du Irura Bizi elkarteak, Irura Moretuz talde feministarekin, Tolosaldea Garatzeneko migrazio sailarekin, gazte asanbladarekin eta herriko kultur mahaiarekin elkarlanean. Larunbatean izango da, 11:00etan hasita.

Eguerdian herri bazkaria egin go dute plazan eta bihar arte bazkaritarako txartelak salgai izango dira Ametsa Trinketea eta Xare Kafetegian. Helduek 20 euro ordaindu beharko dute eta umeek 10 euro. Mahai tresnak eta edalontzia etxetik eraman beharko dira.

UZTA GIRO 2023

Uztailak 15, larunbata

11:00. Familiarentzako dantza afrikarren tailerra egingo dute plazan Kawadeni taldearen eskutik. Zuzeneko perkusioa izango da bertan.

12:30. Barsanti konpainiaren eskutik Kale Gorrian izeneko kale antzerkia.

14:00. Herri bazkaria plazan. Mahai tresnak eta edalontzia etxetik eraman beharko da.

Bazkalostean. Bingo musikatua Gazte Asanbladaren eskutik eta Etxebarria aita-semeak trikitiarekin.

21:00. Barrikotea. Antolatzaileek mahaiak eta sagardoa jarriko dituzte.

Divina elkarteak bere bosgarren urteurrena ospatu du Zizurkilen

Joxe Arregi plazan ostiralean egin zuten urtemuga festa eta beste hainbat elkarteetako ordezkariak gonbidatu zituzten ekitaldira; Afrikako dantza, musika eta jakiak izan ziren

Jon Miranda Zizurkil

Divina Gipuzkoako emakume nigeriarren elkarteak bere bosgarren urteurrena ospatu zuen joan den ostiralean Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. 2018an bost emakumek abiatu zuten elkartearen ibilbidea eta 41 dira gaur egun. Donostian, Errenterian, Ordizian, Pasaian, Tolosan, Villabonan eta Zizurkilen bizi dira kideak eta bertan garatzen dituzte euren ekimen gehienak. Honaino iristeagatik «kontentu» agertu da Og-hogho Nancy Orumwense elkarteko kidea. «Oso pozik gaude Gipuzkoako gizarteak onartu gaituelako eta aurrera jarraitzeko babesa eman digulako», gaineratu du Maria Isoken Giannik.

Beharra sumatu zutelako sortu zuten duela bost urte Divina elkarte. Orumwensek azaldu du, momentu horretan Nigeriatik migratutako emakumeen egoeran jarri nahi izan zutela arreta: «Arazo komunak identifikatu nahi genituen gero haiei soluzio-bidea jartzeko. Garrantzitsua iruditu zitzaigun elkarrekin maizago biltzea, gure egoera nola hobetu ikusi, babesa zein arlotan behar genuen aztertu, eta batez ere, zein esparrutan hazi gintezkeen jakituko». Afrikako emakumeen talentuak ezagutzera emateak duen garrantziaz hitz egin du Giannik: «Sormen handiko emakumeak gara eta gure bizimodua erakutsi nahi diogu munduari. Ez gara hona etorri soilik beharragatik, badugu zer eskainia. Gure abilitadeak zabaldu nahi ditugu lau haizeetara».

Azken urteetan Nigerian sortutako emakumeez gain Afrikako beste hainbat herrialdeetakoak ere batu zaizkie Divina elkartera. «Guk bertako jendearen ikuspedia zabaldu nahi dugu jakin dezaten zer nolako kulturak ditugun gure kontinentean. Askok uste dute Afrika herrialde bat dela, eta askotan azaldu behar izaten diegu askotariko herrialdez osatutako kontinentea dela gurea, oso



Ostiralean Joxe Arregi plazan antolatutako urtemuga festako irudiak. J.M.

aberatsa», nabarmendu du Giannik.

AHALDUNTZEA BULTZATZEKO

Duela hiru urtetik hona era guztietako ikastaroak antolatzen dituzte Divina elkartetik, Orumwensek azpimarratu duenez, «emakumeen ahalduntzea bultzatzeko». Joskintza ikastaroak antolatu dituzte, irakurtzen eta idazten ikastekoak, eta baita dantza tradizionalen ingurukoak ere. «Integrazioarako baliagarriak» diren saioak direla dio Orumwensek, eta nabarmendu du Gipuzkoako Foru Aldundik babesa jasotzen dutela ekimen horiek guztiak aurrera ateratzeko.

Giannik esan du, ikastaroetan ezagutu duten jendeari esker euren harreman sareak estutu di-

tuztela Gipuzkoako hainbat elkarterekin. Ostiralean Zizurkilgo Joxe Arregi plazan gonbidatu gisa parte hartu zuten elkarte horietako zenbait ordezkariak. Besteak beste, Aiztondoko mugimendu feministako kideek lagundu zieten Divina elkartekoei urteurren festan. Dantza tradizionalak egin zituzten eta bertaratutakoek Afrikako jakiak dastatzeko aukera izan zuten. Gainera, inguratutako jendearen artean hainbat sari zozkatu zituzten.

Bosgarren urteurrenako ospakizunekin indarrak pilatu dituztela aipatu dute Orumwensek eta Giannik, «lanean gogor segitzeko». Nigeriako emakumeen talentuak ezagutzera emateko lanean jarraituko dutela hitz eman dute.

Haurrentzako tailerrak antolatu dituzte Larraulen

Erredakzioa Larraul

Larraulgo Udalak, Yaiza Ruiz psikologoarekin batera, 4 eta 12 urte arteko gaztetxoentzat hazkunde pertsonalaren inguruko tailerrak antolatu ditu uztailearen 26tik 28ra. Antolatzaileek aipatu dutenez hazkuntza pertsonala lantzeko eta osasun mentala babesteko tailerrak izango dira.

Izen emateak bihar arte egin daitezke 30 euro ordainduta 634 28 93 27 telefonoan.

HAZKUNDE PERTSONALA

Uztailak 26, asteazkena

09:00 – 13:00. Adimen emozionala. Emozioak identifikatu, ulertu eta erregulatzeko estrategiak lantzea.

Uztailak 27, osteguna

09:00 – 13:00. Autoestimua, auto-kontzeptua eta balio pertsonala.

Uztailak 28, ostirala

09:00 – 13:00. Arreta orainari eta mindfulness-a.

zozketa

Atarikideentzat **bi sorta** ditugu

Atariako
Poltsa, katilua
eta kantineplora

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**



Elduaingo ostata. ATARIA



Elduaingo ostatuko sukaldea. ATARIA



Elduaingo ostatuko taberna. ATARIA

Elduaingo ostata irekitzeko arduradun bila jarraitzen dute

Hiru urte daramatza itxita herriko taberna bakarrak, eta bere ateak zabaltzeko garaia heldu dela dio Gorka Egia aholkulariak; asmo horrekin jarri dute errentan ostata

Leyre Carrasco

Pandemia aurretik itxi zituen Elduaingo ostatuak ateak, eta orduz geroztik ez dituzte berriro zabaldurik. Hainbat saiakera egin dituzte tartean, horren adibide, duela hilabete batzuk Elduaingo Udalak lehiaketara atera zuela. «Berrikuntzak egin genituen, baina deialdia hutsik geratu zen, ez baitzen inor aurkeztu. Une honetan hasierako puntura itzuli gara, lehen fasera», adierazi du aholkulari lanetan ari den Gorka Egia.

«Herri bat taberna gabe gertatzen denean hanka motz gertatzen da erabat», esan du Egia. 250 biztanle inguru dituen herri txikia da Elduain, eta ostata dute bertako taberna bakarra. Elkarrekin gastronomiko bat ere badute herrian, eta ostata itxita egon den bitartean, elkarrekin ostatuaren papera jokatu eta jokatzen ari dela jakinarazi du aholkulariak.

Hala ere, Egia argi du: «elkarrekin oso ondo funtzionatzen du baina taberna beste gauza bat da. Arratsalde batean trago bat har-

tzeko edota edozein ospakizun edo ostiral iluntze batean ogitar-teko bat jateko aukera izan nahi dute herritarrek. Alegia, herritik atera gabe zerbait egiteko aukera, beraien artean biltzeko eta goxatzeko».

Egia Orendainen bizi da, eta bertan «martxa onean» urteak daramatzen ostata dutela azaldu du: «Herritarrok badakigu ondo, ostatuko langileek merezitako oporrak hartzen dituztenean, eta ostata hilabete itxita gertatzen den horretan tristura handia gertatzen dela herrian. Izan ere, ostatuak ere kanpoko jendea erakartzen du, eta hori gabe ez da giroa egoten».

Horregatik, pertsona «arduratsu» baten bila dabilta, «negozio bat eramaten dakiena. Munduko tortilla patata onena egin dezakezu, baina gero ez badakizu tortilla patata horretatik irabaziak lortzen, salmenta behera joango da». Era berean, kozinatze formakuntza izan behar duela ere esan du Egia, baita inguruko konpetentzia ezagutzen duena ere. «Ostata hartzen duen pertsona zertan ari den ja-

kitea nahi dugu, inguruan zer dagoen, zer falta den eta zer eskaini dezakeen jakitea. Herriko ostatu batean egon beharko lukeena egotea, alegia, bertan eskainiko dituen platerak etxekoak izatea».

HAINBAT BERRIKUNTZA

Iaz hainbat berrikuntza egin zituzten. Sukaldea berritu zuten, leiho eta ate berriak ere jarri zituzten, eta terraza bat ere egokitu zuten. Orain, beste hainbat berrikuntza txertatu dituzte eta ostatuko zerbitzuaz gain, denda ere gehitu diotela jakinarazi du: «Xarma handiagoa eman diogu lekuari. Sukaldea berria zegoen baina berriro margotu dugu, mahai gainak aldatu eta txukundu ditugu, errezel pare bat jarri, argiak aldatu eta dendan produktuak jartzeko armairu pare bat ere jarri ditugu, besteak beste. Lokalari maitasun pixka bat eman diogu eta herriko argazki zaharrekin apaindu dugu».

Elduaingo ostata alokatzeko interesa duenak 150 euro ordaindu beharko ditu hilean, baina negozioa martxan jarri bitartean

lehen sei hilabeteetan ez da kobratuko. Taberna bere ateak zabaltzeko prest dagoela aitortu du Egia, «telebista berriaz gain, audio sistema berriak ere instalatu ditugu». Hala ere, ostata irekitzeko ardura hartuko duen pertsonak negozioa martxan jartzeko lehenengo hilabeteetan «oinarri pixka bat» izan beharko duela esan du aholkulariak.

HARREMANETARAKO

Izena eman edo informazio gehiago nahi dutenek, alde bate-tik, Egiarekin jarri beharko dute harremanetan 688 694 048 mu-

gikor zenbakira deituta edo gorka@egia.eus helbidera idatzita, edo, bestetik, udalarekin jarri beharko dute harremanetan, bulegora joanda, 943 683 121 telefono zenbakira deituta edo udala@elduain.eus helbidera idatzita.

Behin izena emanda, baldintzetara gehien egokitzen den pertsona aukeratu da. Horretarako, aukeraketa prozesua abiatuko dute, eta honek bi fase ditu. Galdetegi bat betetzea izango da lehena, non gainditzeko gutxienez 45 puntu lortu daitezkeen. Hori gaindituta, elkarriketa izango da bigarren fasea.

ataria^k KAZETARIEN LAN POLTSA BERRITU NAHI DU

ESKATZEN DA:

- Kazetaritza, ikus-entzunezko komunikazioa edo adar horretako ikasketak izatea.
- Euskaraz jakitea (EGA edo titulu parekidea).
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.
- Interneten jakintza edukitzea: sare sozialak, webgintza...
- Irudiak grabatu eta editatzeko edo argazkiak ateratzeko gaitasuna izatea.

Curriculumak bidaltzeko helbidea: tkk@ataria.eus
Aurkezteko epea: 2023ko uztailearen 16a.

Laugarren eta bigarren egin du Tolosaldeak azken bi estropadetan

Larunbatean Donostian laugarren izan ondoren, igandean Zierbenan bigarren izan zen eskualdeko trainerua



Tolosaldea trainerua, III. Edinor Bandera estropadan, igandean. AITOR AGIRREZABALA/EUSKO LABEL LIGA

Josu Artutxa/ I. Garcia Landa

Euskotren ligako bi estropada jokatu dira asteburuan, Bilbon larunbatean eta Zierbenan igandean. Tolosaldea traineruak laugarren eta bigarren postuak lortu zituen, hurrenez hurren, eta oso gertu izan zen igandekoan bandera eskuratzetik.

Ohorezko txanda zirraragarria izan zen Zierbenan eskualdeko traineruarentzat. Bigarren luzean estropada benetan berdindua ikusi zen, Orio, Arraun Lagunak eta Tolosaldearen artean. Helmutatik metro gutxi geratzen zirela segundo batean aritu ziren hiru traineruak. Azkenean, Orio aurretik helmugaratu zen, Tolosaldea atzetik zuela 1,88ra eta Arraun Lagunak izan zen hirugarren 2,10era. Txandako eta banderako laugarren postua Donostiarrarentzat izan zen; 18 segundora helmugaratu zen, bezperan etxean garaipena lortu ondoren.

Gauzak horrela, Donostia Arraun Lagunak Euskotren Ligako buruari heldu dio eta dagoeneko 21 puntu ditu. Bigarren postuan da Orio Orialki, hirugarren Donostiarra eta laugarren postuan Tolosaldea, hirurak 19 puntuekin.

Gustura hitz egin du asteburuaren balantzea egiterakoan

Uxue Zuriarrain Tolosaldea traineruko arraunlariak: «Ez genuen espero goiko borroka horretan egotea. Liga hasi aurretik gure helburua playoff-etatik libratzea izan da, eta jarraitzen dugu helburu horrekin. Coruña guretzako sorpresa handia izan zen, onerako, faborito diren hiru traineruekin borrokan arituz. Donostian gauza bat probatzera aterakin eta ez zen ondo ateratu ikusten denez. Berrirori saiatu ginen gure arraunketa bilatzen, eta Zierbenan sentsazioen arabera egin genuen eta askoz hobeto ateratu zen».

Euskotren liga hasiera honetan ez da traineru bat nagusitzen ari. Hiru estropada jokatu dira, eta hiruretan garailea ezberdina izan da. «Gu ere espero baino hobeto gabiltza. Helburu berarekin jarraitzen dugu, baina ahal den goren aritzean, gu orduan eta gusturago eta orduan eta ilusio gehiagorekin goaz estropadaz estropada», esan du Zuriarrainek. Banderak lortzea izugarria izango litzatekeela dio Zuriarrainek, «baina gu gurea egitera goaz. Ikusten dugu besteak ere nola dabilzan. Geroz eta gehiago izan borrokan, orduan eta gusturago ariko gara, baina gu estropada bakoitzean erlojuaren kontrako moduko bat egitera

LIGAKO SAILKAPENA

Donostia Arraun Lagunak	21p
Orio	19p
Donostiarra	19p
TOLOSALDEA	19p
Hondarribia	12p
Hibaika	8p
Cabo	7p
Tiran	3p

goaz, gure sentsazioak bilatzera, gure arraunketa bilatzera, eta horren arabera etortzen diren emaitzak ongietorriak izango dira». Hala ere, bandera irabaztea ez dutela baztertzen gaineratu du: «Igandekoan segundo batera geratu ginen, baina gu gurea goaz, eta bandera etortzen bada, ongi etorria izango da».

Asteburuan beste bi estropada izango dituzte, Bilbon larunbatean eta Orion igandean. «Bilboko errekan da, eta oso estropada gogorra da. Itsasoan beti teknika kontua sartzen da, baina Bilbon tira egin behar da, eta hor talde indartsuenak irabazten du», zehaztu du Zuriarrainek. Erlojuaren aurkakoa izango da estropada horretan. Orion itsasoan ariko dira, eta arraunlariak azaldu duenez, «ikusiko dugu itsasoa nola dagoen, zenbat laguntzen duen eta txanda batetik bestera dauden aldeak».



Maria Ordoñez, Asteasuko kaleetatik, igandeko proban. LEYRE CARRASCO

Maria Ordoñez eta Aitor Etxeberria, azkarrenak

Leyre Carrasco Asteasu

Santamañako XXI. Kros igoera izan zuten igandean jokoan Asteasun, eta 103 parte hartzaile animatu zituen Santamañara korrikan igotzen. Iruñako sanferminak alde batera utzi eta Asteasuko Santamañako festak aukeratu zituzten proba irabazi zuten bi iruñarrek: gizonezkoetan Aitor Etxeberria (27.36ko denbora) izan zen irabazlea eta emakumezkoetan Maria Ordoñez (32.50eko denbora).

Iruñarra bada ere, bi urte darmatza Berastegin bizitzten Etxeberriak. Proban parte hartzen zuten lehen aldia izan zen eta «nahiko ongi» ibili zela adierazi zuen: «Berastegin bizi naizenetik inguruko lasterketa askotan parte hartu dut. Datorren urtean berriro egiteko asmoa dut eta

ahal izanez gero, lehen postua errepikatuko dut». Ordoñezek, berriz, proba bigarrenko errepi-katu zuen, eta iazko denbora okertu badu ere, gustura aritu zela esan zuen: «Bero handia egin du eta hori nabaritu da. Iaz baino motelago joan gara, makalago, baina azken aldapako borroka oso polita izan da».

Gizonezkoetan bigarren Ibai Makazaga izan zen, 28.12ko denborarekin, eta hirugarren, berriz, Roberto Carlos Trejo, 28.27ko denborarekin. Emakumezkoetan Maria Lasa irurarrak egin zuen bigarren, 33.38ko denborarekin, eta hirugarren Rebeca Mariñok, 34.01eko denborarekin.

Lehen gizonezko herritarra Jon Zubeldia (30.28ko denbora) izan zen, eta lehen emakumezko herritarra, berriz, Maialen Seguro (43.59ko denbora).



SANTAMAÑA INGURUETAN

Larunbat arratsaldean IV. Orientazio Proba Herrikoia egin zuten Asteasuko Santamaña ermitaren inguruan, datorren asteburuko festen aurretik. Guztira hiru proba egin zituzten, eta dozenaka pertsonak parte hartu zuten, Santamaña inguruetan balizak bilatuz. JOSU ARTUTXA

Altuna III.ak irabazi du eskualdeko derbia

Amezketarra 14-22 gailendu zaio Erik Jaka lizartzarrari San Fermin Torneoko lau eta Erdiko finalean

Endika Apalategi

Jokin Altuna amezketarrak irabazi du 14-22 Erik Jaka lizartzarraren aurka San Fermin Torneoko lau eta Erdiko finala. Ostiralean, San Fermin egunez, jokatu zuten partida. Hasiera borrokatu baten ostean, hirunako berdinketa batekin hasi zen eskualdeko derbia. Lizartzarrak sarea hartu eta 8-3 aurreratu zen markagailuan, baina Jakaren sarea falta bati esker, Altuna III.a tanto bakar batera jarri zitzaion markagailuan (8-7).

Partidako lehenengo atsedenaldira arte, hainbat tanto gogor eta ikusgarri jokatu zituzten eskualdeko pilotariek. Jaka markagailuan aurretik izan zen uneoro, eta 12-10eko markagailuarekin iritsi zen aurretik lizartzarra lehen atsedenaldira.

Ondoren, sakearekin elkarri min handia egiten jarraitu zuten. Hala ere, lizartzarra 14-12 aurretik zen markagailuan eta Altunak partidaren aurrea hartzerik ez zuen lortzen. Hortik aurrera, ordea, partidaren norabidea



Jaka eta Altuna III.a, ostiralean, Labrit pilotalekuan. JOSU ARTUTXA

erabat aldatu zen eta amezketarrak 14-13 tantoa eginda sarea berreskuratu zuen.

Partidako unerik garrantzitsuenan, Altunak bere txapel-dun izaera atera zuen eta lau sake jarraian egin ostean, 14-17 aurreratu zen markagailuan. Psikologikoki, partidako unerik garrantzitsuenan aurretik jartzeak indar handia eman zion amezketarrari, eta 0-10eko partziala eginez 14-22 bukatu zen

San Fermin Torneoko finala eskualdeko pilotarien artean.

Garaipenarekin, Jokin Altunak San Fermin Torneoko hirugarren txapela irabaztea lortu du: «Partida gogorra izan da, Jakak lehenengo zatian asko asmatu du eta ez nintzen eroso sentitzen. Partidak aurrera egin ahala ordea, pixkana nagusitzen joan naiz eta bigarren zatian gehiago asmatuta txapela irabaztea lortu dut».

Iban Agirrezabala, Euskal Herriko Kopako txapeldun



Iban Agirrezabala, podiumaren gorenean. ATARIA

Erredakzioa

Iban Agirrezabala Soronea-Ammma taldeko mendi korrikari berastegierra laugarren izan zen asteburuan jokatu zen Goierriko 2 Handiak mendi lasterketan. Postu horri esker, ultra modalitateko Euskal Herriko Kopa irabazi du.

Ostiralean hasi eta larunbatean amaitu zen Beasaingo Goierriko 2 Handiak 88 kilometroko mendi lasterketa. Proba hori, hain justu, Euskadiko Ultra Txapelketa izan zen. Iban Agirrezabala Soronea-Ammma taldeko korrikari berastegierra laugarren postuan helmugaratu zen, 10.56.55eko denbora eginda. Joseba Eskudero idiazabalدارا izan zen garailea, 10.12.32ko denborekin; Fidel Alvarez izan zen bigarren (10.41.11) eta Iñigo Arantzamendi hirugarren (10.41.45). Euskadiko Ultra Txapelketaren kasuan, Eskudero izan zen garaile, Arantzamendi bigarren eta Iban Agirrezabala hirugarren.

Postu horri esker, Agirrezabalak ultra modalitateko Euskal Herriko Kopa irabazi du, Jokin Uribetxeberriaren eta Aitor Gainzaren aurretik. Larunbatean lortutako puntuak ez ezik, apirileko Enkarterri Extrem, maiatzeko Domusa Teknik 40mlk eta ekaineko Euskal Herria Mendi Erronka lasterketetan lortutako puntuak ere batu dituzte korrikariek sailkapen nagusian.

ZUBILLAGA, LIDER SENDOAGOA

Pasa den ekainaren 24ean, mendi lasterketen Euskal Herriko Kopako seigarren proba puntua-

garria jokatu zen Amurrión, Amurrio Trail Taldeak eta Euskadiko Mendizale Federazioak antolatuta: X. Amurrio Trail lasterketa; 31 kilometroko luzera eta 1.750 metroko desnibel positiboa zuen ibilbideak. Baldintza oso gogorretan egin zuten proba korrikariek, bero eta hezetasun handiarekin.

Emakumezkoetan, Soronea-Ammma taldeko Oihana Zubillaga anoetarrak eta Maud Combarieuk lehia polita eskaini zuten lasterketaren lehen herenean. Combarieuk sufritu egin zuen Aginagatik Unginorako tartean, baina Zubillagari presioa sartzeko suspertu zen, honek ez baitzuen ahuleziarik erakutsi. Zubillagak 3.45.09ko denbora egin zuen. Combarieuk eta Oihane Unzaluk osatu zuten podiuma.

Garaipen horri esker, mendi lasterkari anoetarrak jarraitzen du Euskal Herriko Kopako lider izaten. Bi lasterketa geratzen dira oraindik: uztailaren 22an, Bidarrain (Behe Nafarroa) Baztandarrak Trail lasterketa jokatuko da, eta irailaren 23an, Azkainen Skyrhune lasterketa (finala).



Oihana Zubillaga, podiumean. ATARIA

Julen Gabirondo izan da garaile Gipuzkoakoan

Leyre Carrasco Asteasu

Gipuzkoako Sega Txapelketa izan zen igandean jokoan Asteasu-suko Bulano baserriko zelaietan, eta Julen Gabirondo urnietarra izan zen garailea 5.108 kilo belar moztuta. Ohiko eran izan zen txapelketa, hau da, ordubeteaz zeinek belar kilo gehiago moztu. Gabirondok sasoiko dagoela erakutsi zuen eta 5.108 kilo moztu zituen. Beste hiru partaideak eskualdeko segalariak izan dira. Jokin Etxeberria amasarra bigarren izan da, 4.643 kilo moztuta. Oier Urkola anoetarra sailkatu da hirugarren 3.749 kilo moztu ondoren, eta laugarren izan da Mikel Lizartza tolosarra, 3.419 kilo moztuta.



Gipuzkoako Sega Txapelketako podiuma. L. CARRASCO

«Jokin hasieratik indartsu hasiko zela banekien, beraz, berari eusten saiatu naiz lehen hiru sail moztu arte. Berak behera egin duela uste dut, eta nik erritmoari

etsi diot abantaila gehiago aterarte», azaldu zuen Gabirondok. Azken saila erdizka utzi bazuen ere, eroso eta gustura aritu zela adierazi zuen.



ASTEARTEA, 2023KO UZTAILAK 11
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 11

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. San Bartolome Eguneko haur danborradako entsegua, plazako aterpean, 19:00etan.

Erakusketak

Alegia. Kabinan 2022ko festen argazki erakusketa.

Alkiza. Iñaki Epelde, Koldobika Jauregi eta Jose Luis Longaronen erakusketa, Ur Mara museoa.

Berrobi. Pintura ikastaroko ikasleen erakusketa, udaletxeko sarreran.

Tolosa. La tartana, Topic-en.

Tolosa. Txotxongilo iberiarra erakusketa Topic-en.

Tolosa. Begiradaren jolasa erakusketa. Olatz Aguado eta Jon Basualdo. 3 tabernan.

Tolosa. Olivia Sanchezen erakusketa, Ilargi tabernan.

28 KANALA

10:00. Kirolak Tolosaldean.

15:30. Tolosaldea Gertutik.

17:00. Eugeniren txokoa.

21:30. Tolosaldea Gertutik.

22:00. Musika zuzenean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.

10:00. Patxadaz. Elkarrizketak.

12:30. Pasahitza. Albisteak.

14:00. Telesailak. Alain Rekondo.

18:00. Barnebidetan. Josu Jauregi

geobilogoarekin solasean.

20:00. Oinak Arin. Boiseko Oinkari dantza taldeko kideekin.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Oscar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbola Lorategiak, 3.
943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa.

Leire Andres Morant.
Zabalarreta lorategiak, 1.
943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro motela izango dugu. Egun osoan zehar hodeiak nagusi izango dira, hodei hauek trinkoagoak izango direlarik egunaren bigarren zatian. Azken orduetan gainera ez da baztertu behar euri langar pixka bat egitea. Ipar/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperaturak behera egingo dute, 22-24 graduan joko duelarik goia.



Bihar. Antzeko giroa izango dugu. Egun osoan zehar berriro ere hodeiak nagusi izango dira eta hodei hauek egunean zehar euri txiki modura zaparrada batzuk utziko dizkigute. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu, eta tenperatura antzeko balioetan kokatuko da. Hala, 22-24 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



JAIALDI BEREZIA

Beertoki elkarteak antolatuta, bigarrenegun egin dute Errockmeria Zelatunen. Herenegun egin zuten Hernio magalean musika jaialdia, Esanezin, Habi, Occhi Di Farfalla eta Mihise taldeen parte hartzearekin. Jende ugari elkartu zen Zelatungo belazeetan, eta behe-lainoak efektu berezi naturala ere eman zion jaialdiari. Amasa-Villabonako Beertoki elkartearen helburua izan da tradizio handiko leku hori aprobetxatu eta beste musika bat eramatea. IBAN URDAPILLETA



26. GARAGARDO AZOKA

uztailaren 13tik 16ra • 18:00h • 01:00h

VILLABONA

@irrintzielkartea

@irrintzielkartea

@azokairrintzi

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala
LAGUNTZAILEA

ANTOLATZAILEA